

GERLA URTE, GEZUR URTE

Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo

Fermin Irigaray, "Larreko"
Pamiela, 1993

Ai-ei-ai eta miletan ai!

Gudu otsa baizik nabari ez delarik; gudulari gisako jantzietan emanak milaka gazte karriketan barna dabiltzalarik... nere bihotzminaren andia, nere beldurra! nere ikara!

Sendakin xaharraren egunkaria heiagora batekin hasten da, 1936ko uztailean, Iruñean, gerlako armen harrabotsek airatzen dutelarik hiria. Mende baten epean laugarren aldikotz bere arteko gerlan sartu da Espainia, anaiak anaia hilen duela Euskal Herrian ere. Medikiak badaki zertaz ari den eta gorputzei zer zaien gertatzen, herraren lanak urratzen dituelarik. Zaurituko eta hilen direnen arrangurak bi erdi egiten dio bihotza. Zer egin dezake, argazkiek frango hautsia erakusten duten 67 urteko fededun kartsuak, Nabarrako gazteria "gudu saindura" deitzen dutelarik apezpikuek eta apezek, Mola eta Franco bi jeneral bihurrien eskuan, "gurutzada" balitz bezala? Zer egin dezake bertzalde, bera "gisa batez" abertzalea delarik, hautemaiten duelarik nahi direla «abertzale guztiak ondatu, gorriekin bat egin dutelakotz»? Itzuliko da gerlako zaurituak apalki zerbitzatuz eta, etxeko ixiltasunean, segeretuan, egunean eguneko gogoetak euskaraz idatziz. Guri buruz mintzo dela dio eta noizbait, agian, irakurtzen ahalko ditugula haren pentsaketak. Hiruetan hongoi bat urteren buruan heldu zaizkigu.

Mundu-gerlaren hastapenean gelditzen dira Larrekoren orroitzapenak, Espainiako aharra bururatu delarik eta Alemaniak Frantzia menperatu duelarrik, azken heiagora baten gainean: «Jainko maitea! Berriz ere». Eni gehienik mintzo zait bere baitan ari delarik auzian, gerlak barnea urratzen eta, propagandak beharriak hantzen eta, eginahala duelarrik bere izpiritua- ren bizi eta argi begiratzeko. «Gudu urte, gezur urte» dio ainitz aldiz, leloen artetik egia non datekeen bilatuz. Ahalgeturik dago Elizaren jarreraz:

Azken karlista gudueta gertatu zena, orai ere berdin; apez, fraile, serora eta eliz-gizon geienak, garanurik ez da gelditu, nik uste, guduaren alde eman gabe. Apezpiku jaunak ere "gudu saindura" bere elizatiar guztiak deitu zituen.

Eta oraino:

Arrigarri da; ni arriturik nago nola Elizaren izenean sartzen diren guduaren gora-beretan eta ez gudua behatuz izurritea bezala.

Minbera dago euskaldunek, Nabarraraz haraindian, gorriekin egin duten batasunaz:

Gazteizeko eta Iruñeko apezpikuek biek idazki batean, argi eta garbi erran zuten katoliko gisaz ezin ditekela egin abertzaleek Gipuzkoan egin dutena.

Hiru sailetan emanen ditut Larrekoren irakurtzetik heldu zaizkidan gogoetak. Ikusteko moralaren edo zuzenbidearen egitekoa zer den gerla denboran. Bigarrenik, abertzaletasunaren galdekatzeko. Eta azkenean, gaia zabalduz, Larrekoren oraikotasuna erakusteagatik.

1. Zuzenbidea eta gerla

Morala edo zuzenbidea, bakoitzak bere ustez on denaren eta gaitz denaren artean bidatzeko haria da. Sinesten da batzuetan guzizko moral batean, adibidez hamar manamenduei jarraiki behar dela beti. Sinesten ahal da ere behar liratekeela egitearen ondoreak aitzinetik ontsa pizatu, gero ikusteko zer egin. Politikaren alorrean ez baitira ondoreak ezagutzen ahal segurtasunekin, batzuek diote ezin dela zuzenbiderik egiaz erakuts eta peredika. Hots, gauza ihardukigarri bat bezala agertzen zaigu zuzenbidea. Bizkitarte Larrekok sineste osoa zuen Krixtoaren bakezko mezuan, aldiz apezpikuak mintzo ziren armada bihurriak zeraman gerlaren alde, eta ikusten ahal zituen elizak erregetiarren seinalez apaindurik:

Juan den igandean, meza nagusian nindagola, oartu nintzen Sagrarioko ateko oiala *ori gorritz* zela. Arrigarri da baño ala da!

Nola jasan?

Hasteko, nola zuzen pentsa? Ardura erraiten da izan zela alde bat bertzearen gainera jauzi egiteaz hobendun —Mola eta Francoren armada— historia 1936an hasi izan balitz bezala. Holatsu diote bere bortizkeria lehenbiziko bortizkeria baten gain botatzaile guziek, hastape-

naren mitoa erabiliz nork bere eskuen xuritzeko. Bere aldetik, Larrekok aipatzen ditu «eliza erreziale, konbentu ondazale, eliz-gizon iltzaileak», honetara heltzeko: «badirudi oraiko xurien altxatzea gobernuaren aitziz bidezkoa dela». Baketiarrak ezin jasan dezake adibidez gauza hau:

Españan, errepublika denboran, noiz nai eta non nai, gizon saldo bat armaturik kapitain bat bidari banketxetan sartzen ziren eta, an zauden guziak meatxaturik, an zen dirua ebatsi eta igesari ematen ziren; ori deitzen zuten españieraz *atraco*, euskaraz *ohoin kapitainduen ebasgoa*...

Bere aldetik Hugh Thomas-ek, Espainiako gerla kondatzen duen liburuan, 150 orrialde bete ditu gudua hasi baino lehenagokoaz, erakutsiz iraultza baten hastapena, anarkisten egitatez gehienik, errepublikaren legetasunaren kontra. Agertzen ditu bi aldetako militante amorratuak gerlaren antolatzen ari, biek berdin demokraziatzko antolamendurik ez onetsi nahiz.

Larrekoren ustez, zuzenbidean dira beraz Molaren eskuetara saldoka etorri diren karlistak, nahiz erasiatzen dituen gehiegi baizik ez dutelakotz gudua maite:

Betidanik karlista baitan azala kendu eta gudularia agertzen da; badirudi ametsetan bizitzea eder zaiotela eta, nork daki?, ez ote bearrezkoa ere.

Gero, Elizaren egitekora itzuliz:

Emagun gerla bidezkoa dela, bearrezkoa eta ezin bertzezkoa. Ala ere, biotz guztiz onarturik ere: apez jaunak apez gisaz, fraile jaunak fraile gisaz eta berdin serorak beartuak daude agerian guduaren alderdi bat hartzea? Nik uste ezetz. Apezak, apeza denez geroz, guztiendako berdin bear lukela dirudi...

Apezak, apez gisaz, etsaiekin, ez du egitekorik? Eta baldin badu, nola beteko du obeki: aien etsai agertuz edo ez agertuz? Jesukristo gure jaunak agindu zigun eta ez nola nahi itz okin: ikas zazue enegatik, biotzez ezta eta apala naizela.

Larrekok badaki Nabarraz haraindiko apezak, Gipuzkoan eta Bizkaian, abertzaleekin batean errepublikaren alde direla. Hauei dio:

Baiki, Jainkoaren laguntzarekin bi aldetara egin daiteke ongi; baño, gorrotoa dariotela ari direnak, ez da erraz gauza onik egin dezaten.

Bertzaldi batez idatziko du oraino: «Elizari ez dagokio gorrotoa piztea eta ez gorrotoan iraunaztea ere».

Larrekoren ustez, sendakinak bezala apezak ere alderdi baten agerian hartzerik ez du. Hitzeman zuten guzien artatzea edo guziei ebanjelioaren ekartzea, eta ez alderdi baten zerbitzatzea. Hori erran eta auzia iragaiten du legetasunaren alorrera, barna doan galde honen bitartez: «apezpikuek, apezek badute indar aski, berek uste duteneri agintarigoaren makila emateko? Apez jaunek besteek ez dutena ba ote dute?» Politikaren oinarria joiten da, alabainan, jakin nahiz nori doan Printze edo lehen buruzagiaren hautatzeko zilegitasuna, «nork egin hau errege?» galdeari ihardetsi behar baitu gizarteari manatzeko orduan. Larreko ez da luzatzen. Zartez dio apez jaunek ez dutela boterearen makila emaiten ahal zuzenez. Orduan nork? Populuak bere osoan?... Larrekok, zuhurki, ez du ihardesten. Baina baldintzak badirela boterearen jabe egoiteko agertzen du erranez: «badirudi oraiko xurien altxatzea gobernuaren aitzia bidezkoa dela».

Bizkitarte, egiaren jabe balira bezala gerla saildutzen duten apezari botako die gogoeta hau:

Gobernuari edo agintarieri aitzin egiteko armekin baldintza bereziak bear dire, Jondoni Tomas teologo andiarekin batio daudenen arabera: 1. Agintariek on baño kalte geiago egiten dutelako segurtamena. 2. Agintariek egiten duten kaltea baño gutiago eginen dela. 3. Errialde arek ez duela beste biderik gaizkietarik begiratzeko. 4. Indar aski eta naikoa duela aitzin egiteko eta garaitzeko: aitzin egite orrek ez duela erria besteek adiña xautzen.

Honetara heltzen gara beti: edo zure zuzenbidea (zure morala) sineste hutsari jarraitzea dela, ondoreak gostako direna gosta; edo ondoreak zer diratekeen adimenduari aztatuz ibiltzea dela zuzenbide, alde onak eta alde gaitzak kontsideratuz, orotara gaitzaren gutitzeko gisan. Larrekok ez zukeen Max Weber soziologoa ezagutzen, baina elgar adituko zutela uste dut, honek ere buruz buru emaiten baitzituen bi etika, bat sineste itsuzkoa (den erlisioneak, den multzo batek, den bakoitzari bere jaidurak emaneko), eta bertzea errespontsabilitatearen etika, erran nahi da ondoreen ikustatea. Ageri da Larrekoren hautua azken honetara doala, dioelarik:

gudu baten Zilegigoa, Jondoni Tomas jakintsunaren aldekoek ematen duten baldintzetan bat da labur izan dadien, eta guduak dakartzken ondorio tzarrak ez daiztela izan ekendu nai duten gobernuak egin dituenak baño geiago.

Zer hautsiko den gogoari emanik ari behar. Ez da Jainkoan sineste beharrik holakoaren atxikitzeke eta beraz Larrekoren iduriko gizonekin batean bizi daiteke hartan sinesterik gabe.

Ordainez, zernahi gostarik ere erdiestekoak diren helburu batzuk badirela diotenez –guzizko jainko bat berek asmatu eta denen gainetik jarri nahiz– gizarteari ukatzen diote bere bidearen hautatzeko zilegigoa. Orduan amorratuak lehenik eta gora mintzo. Hara nola Aita Vilariño-Agirre, «omen andiko jesuita». Gernikarra eta euskalduna izanki, Larrekok ez dio

itz bat irakurtu ez euskaraz, ez euskararen alde eta ez Euskal-erriaren alde; arrigarri dena, itz bat ere *nacionalismo*-ren alde; baño bai azken urteotan nacionalismo edo nazionalisten aurka.

Gehienik «gorri-separatisten aurka» erasian entzuna du «azken marxista itsasoan ondatu artio ez ginela geldituko, edo etzirela gelditu bear», zioelarik ere: «es preferible mil veces morir antes que soportarlos». Bere aldetik Peiro Aita Jesuita «mintzaldiz mintzaldi doa [laudatuz eta goretsiz] *Sentido religioso-militar de la vida*». Larrekok ez digu hitzaldien mamia agertzen baina peredikariari bihurtzen dio eztiki:

Josu Krixtok, gizon egin zelarik, erran zigun gudu ematera etorri zela, mundua, deabrua eta aragiaren aurka; baño ori guri irakasteko nola gudukatu bear dugun eta nor diren gure etsai gudu-lariak. Baño, baño, elkar maitatuz eta ez etsaigoan irautez, eta ez elkarren iltzen.

Jesuiten gerlak funtsa bazuela agertzen du ere:

Berriki Franco jeneralak agindu bat eman du, 1932 urtean Jesuiteri ekendu ziezten etxeak, elizak, ontasunak eta zituzten eskubide guztiak berriz itzultzen zeiezteela, eken guzien jabe eginik.

Kondua handiagoak egin behar gero: Hugh Thomasen arabera hilak miliun-erdi baten heina, guduak,

eritasunak edo goseriak eremanik; eta betikotz atzerrituak hiru ehun mila, bi aldetako amorratuen artean aitzinetik erabakia zelakotz (berriz erran, mende baten epean laugarren aldikotz) gerlaz trenkatuko zutela beren artekoa.

Ordu da Elizari doakion auziaren bururatzeko. Hauek dira, nik uste, Larrekoren gogoeta nagusiak: 1. Errepublikaren denbora ez zen ona, gizarteak nahi eta behar duen ordenantza ezin erdietsia zelakotz. Legetasuna iraunkorki hautsia zen eta «politikaren arabera, badirudi arrazoin aski bazela gudua pizteko». 2. Bizkitarte ez zen arrazoinik «erreligioa banderatzat artzeko». Ez zuen Elizak gerlaren saildutzetik ez eta herraren hedatzerik. Zuzenkontra ibili da ere «agintarigoaren makila» alderdi bati onetsiz, politikazko sail hortan ez duelakotz botere zuzenik.

Bizkitarte ainitz apezek Euskal Herrian abertzaleen alderdia hartu zuten, errepublikaren alde hasi zirelarik gudian. Hau zen Larrekorentzat bertze bihotzmina, euskaldunek elgarren hiltzea, batzuek erlisionearen eta bertzeek aberriaren izenean. Orduan galdez hasten da jakiteko zer eta zein ote den euskaldunen aberria.

2. Zein da gure aberria?

«Ai-ei-ai! Eta nork daki zuzenki eta egiazki abertzaletasuna zer den, eta egiazkoa izateko nola bear duen izan?» Oihu saminak orroitarazten du gerlaren hastapeneko hura. Sabino Arana-Goirik asmatu zuen *aberri* hitza. *Euzkadi* uharte bilakaturik ikusten zuen, beregain jarria estatu baten jabe, kanpotik trumilka etorriak ziren espainiarrak kanporat emanik edo bederen, euskaldunak elgarren artean

bizitzeko gisan plantaturik, berezkuntza edo *apartheid* eginez ezkontzaz, mintzairaz eta sinestez. Oroz lehen sinestez, Sabino profetak baitzion «Euzkadiko mendiek entzun badute independentziaren oihua, Jainkoarentzat bakarrik goititu da». Horiek gogoratzen ditu Larrekok abertzaleak gorriekin ikusiz. Iduri luke *euskaldun-fededun*-tasunek bildu zutela PNV alderdira eta, beharbada, horiek bakarrik, gainerateko xedeak gutietsiz. Ordainez beregaintasuna berehala erdiesteko xedeari eman diote lehentasuna abertzaleek, gorriekin uztartuz eta hortakotz girixtinoen batasuna urratuz. Larrekok uste du «ez zoazila Elizaren aurka eta ez apezzen aurka ere». Baina gerlak bi eskualde baizik ez eta euskaldunak bi aldetarik buruz buru.

Nabartarrek armekin hartu dituzte Irun eta Donostia. Madrilen Errepublikak onetsi du *Estatuto de Autonomía Vasco*, Euskal Herriari utziz beregaintasun nasaia, nahiz ez burujabetza edo independentzia. Beregaintasuna ere hitzetan, gerlakari kanoia delakotz nagusi. Denik ere Jose Antonio Aguirrek zin egin du Gernikako aritzaren azpian, zerbitzatuko duela aberria eta gudariekin batean askatuko, ahal badute, etsaiari kenduz Araba eta Gipuzkoa. Larrekoren galdeari Jose Antoniok erantzun lezaioke naski *aberri* hitzak itxuratzen dituela eusko-herritar baten eginbideak, aldiz *herritar* hitzak euskotar bakoitzaren eskubideak, eta ideia horiek elgarri lotuak direla sortzez: (aberri + herritar), (eginbide + eskubide). Egun hunkigarri hortan beraz Aguirrek, Leizaolak eta Monzonek zin egin dute aberriaren zerbitzatzea, bere nahitara gudari bilakatu direnekin batean. Ordu hortan sortzen ikusten dira bakoitzaren

eginbideak eta aberria osatzen duen paktoa, bai eta zertako, huni esker, herritar bakoitzari zor zaizkion askatasuna eta eskubideak. Bizkitarte, multzo kartsu baten hitzarmena da, gerlako nahasmenduen erdian prisaka egina. Geroari behatuz (eta gerla irabaziko dela asmatu ere), airean daude oraino Euskadi/aberri/herritar/goak, populua bere osoan eta ezagutza argiarekin mintzatu arte. Aberria etorkizuneko gauza gelditzen da, bihotzeko atxikimendua delakotz eta bihotzen biltzeko ainitz arta behar.

Gernikan iragaiten direla urrats horiek, Nabarran diputazioneko langile bakoitzak «zin eginez erran bear du politikako zein alderdikoa den eta zer lan egin duen alderdiaren alde». Larrekok aitortzen du PNV-ko partaide bat dela, ahalik eta ontsa ikasi dituela euskara eta herriaren historia, irakurtzen dituen hamabi agerkarien zerrenda eta apezpikuari mila pezeta emanik “gudu saindu” egiteko. Badaki begietan dauzkatela euskaldunak oro eta ainitz hil izan direla Nabarran, auzirik gabe. Gaizki ikusiaren beldurra badu berak. Denik ere, barnagotik heldu zaio abertzaletasunaren kezka, ez duelakotz edozein aberri (edo *patria*) edozein saritan onesten, maitatzen eta zerbitzatzen ahal.

Gogoetan dago. Erran denaz Espainiako gobernu moderno baten alde litzateke, gobernu laiko bat onetsi lezake, Elizaz baitio politika ez dela haren gauza. Bertzalde “gorrien” kontra da, ez baitezpada haien helburu guzien etsai delakotz baina piztu duten gerlarengatik (hori zuen pentsatzen). Onesten du abertzaleak Errepublikaren alde “gorriekin” jartzea, baldin bada bakez gobernatzeko. Baina ez Espainiaren erdi bati gerlaren egiteko:

Gorriak eta abertzaleak bakean elkartzea estatutua erdiesteko, ba daiteke. Baño, gudu batean, nola elkartu eta bateratu gudu-bideak eta asmo zuzenak eta asmo tzarrak? Ezin diteke nik uste. Bizkaiko gorriek beste gorrien bide berberak erabiltzen badituzte, euskotarrek ezin onetsi dituzte.

Gerlakari eta beraz gaizki sortutzat dauka Euskadiko gobernu, lekuko deitzen dituela Pierre Lhande eta Sabino Arana Goiri. Erraiten digu Aita Lhandek latzki erasiatu zituela hegoaldeko abertzaleak, nolaz batean galduko zituzten erlisionea eta autonomia. Orroitarazten ere Arana-Goirik zioela: «obe da galdu ditzagun gauza guziak kristautasuna baño». Gaizkitzen ditu «gizalegearen arrastak lazatzen eta urratzen» diren gertaldiak. Minberatzen du berri batek:

Bizkaiako gobernuko Leizaola jauna Zuzentzako minixtroak bere lekua ustua duela, presondegiko berrehun erregetar bahituak, aren iritziari jaramonik egin gabe, il dituztelakotz.

Holako "justiziarik" ez dezake jasan neheregandik, gerla denboran ere.

Bertzalde, erregetarren eta karlisten aldera aiher da euskarari egiten dioten kaltearengatik:

Españako erregetarren artean, eta oriek dire Euskal errian nagusienak, euskarari gorroto bizia diote, nik uste, euskara delakotz euskalerriko izatearen nabarmenik ageriena; euskaldun erregetarrek biotzean gorrotoa dutelarik, bozik utziko dute euskara eta nork daki ez ote duten euskaldunak direla ukatu.

Egun batez halere, iguzkia hedoen gibeletik bezala,

Karlatar gazteak eta beste batzuek gazte ez direnak asi dire erraten

euskarari buruz eta euskaldungoari buruz zerbeit egin bear dela, orai artio abertzaleak edo nazionalistak ortaz baliatu direla egiazko euskaldun gisa agertzeko, baño euskaldun itxura baizik etzutelarik.

Berandu dela dio mediku zaharrak, zapaldi gaitza hartua duela herriak eta euskara gaizki geldituko dela gerlaren-gatik:

Aspaldidanik erraten ari naiz: baldin biotzaren erdi erdian euskararen alderako maiteta-suna landatzen ez bada nekez biziko dela, eta oraiko aldian bi aldiz.

Hots: zer irabazteko du euskarak alderdi-kioen gauza bilakatuz? Euskarak nahi ditu bakea eta bihotzek maita dezake-ten gisako ingurumena. Beharrezkoa da mintzatzeko ala gozatzeko tresna huts bilaka dadin, ezen bertzela:

euskaldun izatea aski da begi okerez edo zearrez beatzeko. Emen guztia debeku izanen dugu; euskara abertzale-tasunaren ezagupidetzat emanen dutelakotz, nik uste.

Urrunago berriz : «abertzaleari dioten gorrotoan euskara ere sartzen baitute, Euskalerraren izateak ezabatuko dituzte».

Espainiako gerla bururatzean, J.A. Aguirre ihes egina delarik 1939ko martxoan, Larrekok hobeki argitzen du aberriarenganako jarrera:

Nik uste, lan eta auzi untan bear litzekela argi eta garbi erran zer den *patria* eta Españan bizi garendako ez dela *patria* bat baizik eta ura zein den eta zergatik.

Aberritzat Espainia beraz, iduri luke. Zeren ohi bezala argi eta garbi

mintzatzeko orde, gune honetan pasarte itzalduna eskainia zaigu. Hobeki erran, gogoeta luze baten hastapena datake, zorigaitzez bururat heldu gabea:

Kardinal [Goma] jauna mintzo da *patria grande* delakoaz eta ori, nik uste, ez dela erraxa berexen *patria chica* delakoaz; ots *patria grande*-k zer duen berea eta *patria chica*-k zer eta zerk berexen ahal duen; eta biek ez badute anditasuna baizik berexen duenik, anditasunak ez dio izateari bere indarrrik ekentzen eta orduan biak bat baizik ez dira, nik uste dutan bezala. (...) Kardinale jaunaren arabera iru gauzak : leku edo eremu bat, lege oiturak eta oroitura [historia]; untaz landara dio ere "*berarizko bizi modua*"; oriek dire aberri baten ezagupide nagusienak. Nik uste aberri baten ezagupide ageriena, nagusiena eta guztiek aisago berexen dutena errialde baten izkuntza dela.

Pasarte honen argitzera eginen dut orain.

Lehenik erran, *patria* ala *aberi* bi hitzak ideia beraren agertzeko direla iduri du. Bigarrenik, aberriari bere *izatea* emaiten dionak ez du herrialdearen zabaltasunarekin deus ikustekorik. Ados naiz horrekin, sendimenduzko lokarri bat delakotz. Hirugarrenik, aberri bakoitzak nahi ditu ainitz gauza elgarrekin batean: eremua + lege ala ohidurak + historia + berarizko bizimodua + hizkuntza. Adibidez Nabarrak iragan zuen historia berezi bat («Nafarroa ez zen ez Frantzia eta ez España, nik uste») eta pausatu diren seinaleen arabera Euskal Herria aski berezia da, partikulazki hizkuntzaz, aberri baten jartzeko. Denik ere «auzi untan argi eta garbi erran [behar] España bizi garenendako ez dela

patria bat baizik».

Xehetasun horiengatik, oraino ere ez zait iduritzen ongi argitua dela aberriaren erran nahia, eta ez dutela kanpotik agerizko ezautgarriek emaiten ahal, segetua izpirituzko eskualdean delakotz. Bada gauza bat Larrekok azpimarratu gabea: *patria* izaitetokz herritarrek behar dutela elgarren arteko atxikimendua eta eginbide batzuen (guziek eginbide beren) betetzeko xedea. Ikusgune hau hartuz, Larrekoren jarrera agertzen da zalantzarik gabe dioen «España bizi gare» erranetik: "*patria* bat" dela gisa hortan atxikitzeo, guziz behar da Euskal Herriarenganako eginbideak eta Espainiaren aldekoak ez daiten eman elgarri buruka. Orduan biak maita daitezke eta biak zintzoki zerbitza (Nabarra eta España, zertako ez?) edo bat gehienik baina batera doa, bien artean etsaigo nagusirik ez denean. Gogo horretako gizona zen Larreko, alde batetik «ni barne-barne-tik euskalduna naiz eta euskaldun gisaz jokatu naiz» moldekoa, baina bertalde abertzale batzuk gorriekin zeramaten gerlari aihet. Baina aihetgoaren arrazoinak ez dira xeheki eta xuxen agertuak. Larrekok ere senditzen zuen gogoeta horien luzatzeko beharra, zioelarik: «azkenean, Jainkoa lagun, erranen dugu [Goma kardinalaren] eskutitz untarik zerbeit geiago». Baina ez da argimendu berririk hatzemaiten. Damurik! hiruetan hogoi urteren buruan puntu berean baita abertzaletasunaren egoera: atxikimendu bakuna eta bikuna dutenek behar dutela elgarrekin heldu edo elgargoa lehertu. Idazlearen oraikotasuna agertzen da gai zabalagoan ere, orain ikusiko denaz.

3. Larrekoren oraikotasuna

Bakotxak bere dituen eskubideak begiratzeko, leenik bear ditu bertzeerenak aitortu eta begiratu.

Gerlaroko gezur-mezurrei ihardokitzeko "isiltasunean" mintzo den bezala, Larrekok ez ditu oihukatzen bere politikazko pentsamoldeak. Erakutsi nahi dut hemen, girixtinotasun ideki bati esker liberalismoaren ondore nagusiak onesten dituela. Berari hartzen diot hitza, nahiz hobe litzatekeen naski demokraziari atxikia dela erran. Hitzaren erro nagusia (frantsez *liberté*, espainolez *libertad*) askatasuna da. Muturreko *ismo*-ak berriz salatzen du sineste bat: gizonak, askatasunean eta guzizko nagusirik gabe, adimenduaren edo arrazoinaren bitartez bakarrik antolatzen ahal dutela gizarte bat, honek, ordainez, bakoitzaren askatasuna indarrean begiratu duena. Sinestearen bihotza da, lehen-lehenik giza-eskubideak landatuko direla politikako plazaren erdian, gero gizarteari doazkion gauzez arduratzeko ahalatasuna orori eskainiko dela eta, hirugarrenik, bakoitzaren askatasuna errotik zainduko duela gizartearen hautuko estatuak.

Ainitz sailetan eta ainitz moldez izartzen ahal baita askatasuna, hortarik heldu da liberalismoak ez duela aurpegi bat bakarrik. Denik ere, huni jarraikitze aldi oroz agertzen da: 1.) Denek behar dutela gizartearen hautuetan sartu, bazter egoiteko orde nonbaitik jautsiko denaren beha; 2.) Hautuen alorrak behar duela zabalik idekia izan, traba guzietz garbi, gogoetarik xahutuz prinzipioak (zerutik jautsiak balira bezala) eta bere buruak printze ekartzen dituztenen lehentasu-

na (Jainkoaren ordainak balira bezala). Bi gauza errotik etsai dira liberalismoaren jartzeko: guzizko boterea (den errege, den armada, den alderdi batena) eta beharrezko sinestea (den zeruko den lurreko erlisione baten manamenduei nahitaez jarraikitzea).

Gai horren gainean Larrekok aipatzen du Sarda Salvany katalandar apezaren liburua, *El liberalismo es pecado*, erranez : «ni aurra eta gazte nintzenean katazka gaitzak sortuazi zituen katolikoen artean». Hemeretzigarren mende buruan beraz, noiz eta karlistek hirugarren aldikotz galdu zuten gerla. Gudu honi ere "gurutzada saindu" baten omena egin zioten girixtinoen berotzeko, liberalismoaz ahotaraka salatuz heretikoa zela, bekatua beraz eta gainera atzerritarra, hobeki erran frantsesa, hitz honek mugaz haraindian hartzen duen erran nahi ozpi-narekin. (Egia da Frantziako iraultza-ren ideia nagusiak harat heldu zirela pasaporte hitsarekin, kanoiekin batean. Egia ere *arrazoinaren* epaitokira deitzen zituela sineste guziak, ainitz erregetasun handi ala txiki gaizkituz, haietarik jausten diren aipu eta alokairuekin. Orduan kurrinkak! bi besoen zerura adartzeak eta hitz larriak: bekatos! ohoin! atzerritar! gorri!... Barkatu ene berotzea.) Holetan liberalismoa bekatu. Ordainez, zer hautemaiten du Larrekok ordu hartan Espainia guzian? Bere ideiangatik auzirik gabe gizonak tiroka hiltzen; bere mintzaira (ez delarik espainola) adixkideei telefonatzeko ere debekatua; eskutitzak idekiak; bilkura tokiak barrandatuak; azkatasuna lehertua. Mintzo zaigu izurrite batez.

Orain hurbilagotik aztertu behar liberalismoaren jarreran dagoenez. Pundu baten gainean ezagutzen dugu bere iritzia: Elizak ez duela politikari

manatzerik, ez gerlaren onesterik edo saindutzerik, ez boteredunen sakratzaile izaiterik. Nahi luke eliz-gizona joka dadin edozein herritar bezala, gehiagorik eta gutiagorik gabe. Alabaina: «guk uste dugu arrazoñak bere bideak dituela eta gizonan baitan ez daitekela arrazoñaz landara zuzenki bizi». Arrazoina orokorki goresten delarik zuzen bidatzeko, politikaren eginbideak ere adimenduaren bitartez aurkitu nahi direla, iduri zait. Hasteko! ez bortizkeriaren gainean: «baketiarrak zorionezkoak deitzen ditu [Krixtok] eta orañik gudulari zorionezkorik ez du adiarazi...». Elizari bereak erranik, bertze gisako egiaunak eta totalitarismo mota guziak baztertzen ditu ere. «Gorriak», bakez gobernatzeko ahala kendu zutelakotz errepublikari. Supiztaile «xuriak», arrazoin berarengatik. Mussolini-ren fazismoa edo Hitler-en nazional-sozialismoa berdin, Spengler idazlariaren erranetarik hasiz: «Spengler arabera, bakean bizitzea ez da bizitzea, baizik iltzea; bertzeeri nagusitzeko guduan bizitzea bizigarriena». Urrunago: «Alemanek uste dute errialde baten bizitza gudua dela, baketiarrak ez direla gizonak, ezinduak baizik, etsituak». Leloek lotsatu gabe aitortzen du orduan: «ni ez naiz gudularien aldekoa; bakea maiteago dut gudua baño». Eta armen hartzeko beharra agertzen delarik, «ori norbait artako gai denak agindu bear». Prinzipio horren argira Espainiako gerlaren hobendunei saminki galdatzen die: «gudu untako zilegigoa nork agindu du? Asi aitzinean, iñork ez». Gero Hitlerrez mintzo:

Arrigarriak dire jaun unen gogoetak!
Ez du Jainkorik; jaun unen gogoeta bere errialdea, bere burua. Gizonak bere urko lagunik ez du berexten; bere erritarrak, nagusiak...

Iduri luke beraz liberalismoaren asmoak nasaiki agertzen dituela Larrekok.

Ohargarri zait bereziki gorago azpimarratua nuen gogoeta hau: «bakotxak bere dituen eskubideak begiratzeko, leenik bear ditu bertzeerenak aitortu eta begiratu». Giza-
-eskubideen gaia erakusten digu ederki, dotrinaren bi aurpegiak batean agertuz: eskubide eta eginbide. Horretarik hasiz, liberalismoaren (eta demokraziaren) eztabadak agerian emaiten ahal dira zenbait galdez: 1.) Zein dira funtsezko eskubide horiek? Noiz eta nola agertuak Europako historian? Gizakiaren eskubideak ote dira (gizonaren naturalezari josiak) ala Herritarraren eskubideak eta orduan, estatuaren bitartez berezi eta zaindu beharrak?... 2.) Bakoitzari bere eskubideen gozoa emaiteko, hunen aldera eginbideak baitituzte guziek: bortxarik gabe jartzen ahalko ote da eginbideen zerrenda? Ametsa ote da gizartetik bortxaren kentzea, bereziki gehien-goak gutiengoari egiten duena? Eta nola hel gizarteko zati batek bere gisako sinesteak dituelarik eskubideen eta eginbeharren gainean?...

Larreko aise ateratzen da galde korropilotsu horien artetik «Jainkoaren manamenduak» eginbidetzat hartuz. Nekeago da oinarrien finkatzea arrazoina erabiliz bakarrik. Hara nola Frantziako iraultzaileak hiru aldiz hasi ziren gizakiaren eta herritarraren eskubideak zerrendatu nahiz eta hiruetan etsiturik gelditu.

Azken hitza

Larreko giristino kartsua bezain Jainkorik gabea zen Spinoza filosofoa. Uste zuen politikaren helburua dela

herritar bakoitzari askatasun osoaren ekartzea eta iduri zitzaion gizarteak erdiesten ahal duela gauza hori, herriko ordenantza adimenduaren ala arrazoinaren gainean finkatuz. Bizkitarte, Spinozak zentzu berezi bat emaiten zion askatasunari, zioelarik aske dela gizona, noiz eta bere baitako jaidura bortitzak eta pasione zorrotzak gaiturik, bere nahitara arrazoinaren menean osoki bizitzeko xedea hartu ondoan. Baldintza hortan Spinoza mintzo da adimendu askatuaz erranez:

Estatua eraikia da gizonen gorputz-arimek egitekoak bete ditzaten segurtamenean, adimendu askatua erabiliz, batzuk bertzeei herraz, hasarrez edo

amarruz bihurtu gabe, aldiz elgar jasanez.

Asmo hori aski bitxia zaigu, pasione erakituenak direlarik politikan sartzen eta, gerlazko ideologia batzuen bitartez, klaseen edo populuen arteko gorrotoa sustatzen delarik honenbertze aldiz. Hau da jarrera bat. Historiak erakusten digu ere gizarteak ahal guti duela zati batek gerla goratu nahi duelarik, bertzeek pentsatzen dutena pentsa, berak guzizko balioa emanik helburu bati. Baina izan daiteke bertze bat: justizia eta bakea, biak erdiesteko xedearekin denak lanari emaita, gogoan hartuz bertzeen arrazoinak balio dutela hoberenera heltzeko.

Xan Irigaray